

zumaia

4. zenbakia • 2009ko abuztua

ZU
udalaldizkaria



Zumaia Udalak



Zumaia eraikitzen

Udala hainbat eraberritze eta egokitzapen ari da egiten han eta hemen; martxoan abiatutako zazpi proiektuak ere bide onetik doaz.

aurkibidea

2 Erregistro Orokorra

3 Inkesta

4 Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Zumaia eraikitzen

9 Berdintasun diagnosis

10 Zumartian

11 Musika Jaialdia

12 Motxian

13 Alderdien iritzia

Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala

Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: Zumaiaiko Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 4.500 ale

L.G: SS-139-2009

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Tramiteen zurbia

Foruen enparantza, 1
Tel.: 943 865025

Zumaiaiko Udaleko Erregistro Orokorrean Gipuzkoako Foru Aldundirako tramiteak erregistratzeko aukera dute zumaiarrek zein inguruko herrietako gainerako bizilagunek.

Hala, herritarrek aurkeztu beharreko dokumentazioa Udalera ekarri eta udaletxea arduratzen da erregistroa Aldundira igortzeaz.

Donostiara joan beharrik gabe, Aldundirako oposaketetan izena emateko edota edozein erreklamazio helarazteko, adibidez, Zumaian bertan erregistratu ditzakete herritarrek Aldundiari zuzendutako eskabideak.

Zerbitzu horrez gain, Zumaiaiko udaletxerako ohiko erregistroak egin daitezke Zumaiaiko Erregistro Orokorren bidez, lan eskaintzetarako instantziak entregatu, alegazioak aurkeztu edota plenorako mozioren bat helarazi, adibidez.

UDAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera,
07:30etik 14:30era.

NEGUKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera,
07:30etik 15:00etara.

400 erabiltzailetik gora ditu jada Udalak abian jarritako bizikletak alokairuan hartzeko zerbitzuak. Eskaintza berriaz herritarrek dituzten inpresioak jaso dira atal honetan.

El nuevo servicio de alquiler de bicicletas promovido por el Ayuntamiento ya dispone de más de 400 usuarios. En esta sección se han recogido varias opiniones acerca del servicio.

Zer iruditu zaizu bizikleten zerbitzu berria?



Ana Arnillas

Idea oso ona iruditzen zait. Beste hiri batzuetan ere ikusi ditut antzerako zerbitzuak. Bartzelonan, adibidez, badaukate, Donostian ere bai eta Mallorcan ere uste dut badaukatela. Zumaia bezalako herrietan jendeak automobila ordezkatu eta bizikletak erabili beharko lituzkeela iruditzen zait. Madril bezalako hiriburu batean, adibidez, beldurra ematen du bizikletan ibiltzeak, baina Zumaia lasaia da horretarako.

Me parece que la gente tendría que sustituir el coche por las bicicletas.



Gurutz Garmendia

Batez ere bertakoentzako zerbitzu egokia dela uste dut. Denbora luzeagoan erabiltzeko aukera izango banu, neuri ere ondo etorriko zitzaidan lanerako. Banatzaile gisa egiten dut lan eta bisitak egiteko baliagarria izango litzaidake zerbitzua. Ordubetean guztia egiteko ez dit ematen denborarik, ordea. Denok erosoegi bizi gara eta ekimen hau beste herrietan ere bultzatu beharko litzatekeela pentsatzen dut.

Trabajo como repartidor y el servicio me podría valer para realizar las visitas.



Emilia Cortes

Oso ondo iruditzen zait bizikletak alokatzeko zerbitzu hau martxan jartzea. Oraindik nire inguruko inork ez du atera erabiltzaile txartela, baina auto gutxiago eta bizikleta gehiago egon dadin, ahalegina egin beharko genuke. Zerbitzu honek lagundu dezake kotxea ordezkatzeko. Orain bideak egokitu beharko liratekeela uste dut herrian bizikletan lasai ibiltzeko. Izan ere, auto asko ibiltzen da Zumaian.

Me parece bien la idea de menos coches y más bicicletas.



Xabier Irureta

Zerbitzuaz baliatzeko enpresen arteko kompetentziarik sortzen ez bada, ondo funtzionatuko du zerbitzuak. Niri egokia iruditzen zait Udalak zerbitzu hau eskaintzea. Holandan eta beste hainbat herritan, adibidez, ohitura handia dute bizikletan ibiltzeko. Sendagileak beti esaten digu oinez ibiltzera joateko, eta oinez edo bizikletaz, ariketa egiteko aukera polita da hau. Denak aterako ginateke irabazten.

El servicio ofrece una buena ocasión para hacer ejercicio.

udala zuzenean



bi urte igaro dira udal gobernuan lan egiteko aukera sortu zitzaigunetik. Bi urte hauetan, bide berriak eraiki ditugu Udalaren funtzionamenduan. Ikasteko balio izan digu eta gogorra izan dela aitortu beharrean bagaude ere, aurrera egiteko indarra eta ilusioa ernatu dira berriz ere. Gauzak beste modu batean egin daitezkeela erakutsi dugu, berdintasuna eta konkurrentzia politikoa izan dira gure ardatzak. Hala, aldaketa sakinak eman dira Udalaren gestioan, Zumaia Lantzen erakundean, kirolaren kudeaketan edota pertsonalean. Denon artean, Udal berri bat eraikitzen bidean goaz.

han transcurrido dos años desde que tuvimos la ocasión de formar el equipo de gobierno. En estos dos años, hemos creado nuevos caminos en relación al funcionamiento del Ayuntamiento. Nos ha valido para aprender y aunque tengamos que reconocer que no ha sido tarea facil, la ilusión y la fuerza para seguir adelante han germinado. La concurrencia política y la igualdad han sido nuestros ejes y hemos demostrado que se puede ejercer de manera distinta. Ha habido cambios en la gestión del Ayuntamiento, en la administración de Zumaia Lantzen, en el personal o en la gestión deportiva. Entre todos, vamos en camino de construir un nuevo Ayuntamiento.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzen Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Zumaia Musika Banda udaletxetik behera. Dirudienez, XX. mende hasierako argazkia da.

La Banda de Música Municipal bajando desde el Ayuntamiento. Parece que la fotografía es de comienzos del siglo XX.



Itzurungo hondartza 1918. urtean. Argazkian ikusten diren kasetak neguan gurdiz jasotzen zituzten. Jende askok igerian ez zekienez, uretan soka bat jartzen zuten hari helduta bainatzeko.

La playa de Itzurun en el año 1918. En invierno las casetas se recogían con carretas. Dado que la mayoría de la gente no sabía nadar, solían colocar un cable en la orilla para bañarse agarrado a él.

Herritarren ahotsa buzoietan



Iradokizuna

Mojetan dagoen semaforoa

Mojetan dagoen semaforoa botoia sakatuz funtzionatzea eskatzen dut. Bai astean zehar eta baita asteburuan ere. Gero eta jende gehiago ibiltzen da hortik-eta. Bestalde, mojetatik Gautxori aldera doan espaloia oso estua da, mojen paretik pasatzen den tokian. Hori oso arriskutsua iruditzen zait eta, beraz, espaloia handitzea eskatzen dut.

Erantzuna

Semaforoaren ekarpena egokia dela uste dugu. Egia da gero eta jende gehiago ibiltzen dela eremu horretan. Aipatzen duzun botoi hori jarri egin beharko litzatekeela uste dugu guk ere eta aztertuko dugu.

Bestalde, espaloiarekin kontua, bere osotasunean, eta bariantea egina dagoela ikusita, Axular ibiltokiari kale izaera emateko proiektuaren barruan ari da aztertzen Udala. Aldaketa horrek kale horretan oinezkoek lehentasuna izatea ekarriko du, oinezkoentzako pasabide egokiek.

Iradokizuna

Nagusientzako parkeak

Kaixo, nik pertsona nagusientzako parkeak jarriko nituzke. Horrela, ariketa fisikoa egin ahalko dute adinekoek. Bilboko Etxeberria parkean ikusita daukat antzerako parke bat.

Erantzuna

Guri ere zerbitzu egokia dela iruditzen zaigu. Badarabilzkigu buruan zerbitzu honen ezaugarrien eta kokalekuaren inguruko zenbait ideia. Horri lotuta, helduentzako parkea kokatzeko toki egokiena proposatzera animatu nahi zaituztegu webguneko parte-hartzeko atalaren bidez.

Iradokizuna

Parque infantil de Basadi

Agradecería pudieran pasarse por los columpios que se encuentran detrás del nuevo ambulatorio, en el barrio Basadi, ya que hay un columpio totalmente destrozado. Estaría bien que hubiese personal que revisase periódicamente las zonas de ocio para los más pequeños a fin de poder evitar accidentes. Asimismo, sugiero la creación de alguna zona de ocio cubierta para los más pequeños, donde puedan disfrutar incluso en los días de más lluvia.

Un saludo y gracias, Ana

Erantzuna

Estimada Ana,

Este mismo mes tomará posesión de su cargo el nuevo encargado de servicios de la plantilla del Ayuntamiento y se encargará de estos asuntos principalmente. En cuanto al parque de Basadi, la brigada que se formará durante el verano a través de la Mancomunidad del Urola Costa (Urola Kostako Mankomunitatea) rehabilitará el mencionado espacio.

En lo que respecta a la creación de una zona de ocio cubierta, la construcción del sotechado en el colegio Julene Azpeitia podría valer para tal fin. Aún así, estamos analizando varios espacios para la creación de una zona de ocio cubierta para los más pequeños.

Iradokizuna

Webcams en la página web

Muy buenas tardes, me dirijo a usted para comunicarle que desde hace unos días no puedo acceder al servicio online de webcam del puerto de zumaia, me gustaría saber, si es posible, si ha habido algún cambio de dirección, o se ha descontinuado el servicio. Reciba un cordial saludo.

Eusebio Sanz

Erantzuna

Estimado Eusebio, El Ayuntamiento ya está trabajando en el tema, y de igual manera, está estudiando la manera más conveniente para seguir ofreciendo ese servicio a los zumaiarras. Poco a poco, e ininterrumpidamente iremos actualizando secciones y aportando nuevos servicios a todos vosotros.

Iradokizuna

Autokarabanentzako eremua

Honako iradokizunak bidaltzen dizkizuet:

- Non lo egin atarian (turismo atalean) autokarabanentzako leku berezi bat dagoela jarri beharko zen eta bertan dauden zerbitzuekin. Herriaren sarreretan ere seinale bat jartzea interesgarria izango zen.

- Zer egin Zumaian / Material alokairua ataria, uste dut bertan azaltzen den informazioa ez dela zuzena.

Erantzuna

Egokia iruditzen zaigu proposatu duzun iradokizuna. Webgunearen turismo atalean autokarabanentzako eremuaren azalpena egitea baliagarria izango dela iruditzen zaigu guri ere. Gaiari lotuta, Udalak jada martxan du eremu hori seinaleztatzeko plana eta laster ikusiko dituzue seinaleak herriko sarreretan. Bestalde, eguneratuta daude material alokairuari buruzko datuak. Eskerrik asko hobetzen laguntzeagatik.

Hobekuntzak eraikitzen

Udala hainbat eraberritze eta egokitzapen egiten ari da batean eta bestean. Lan gehienak urtea amaierarako bukatuta izatea aurreikusten da.

El Ayuntamiento de Zumaia está realizando varios trabajos de adecuación en el municipio; se prevé que todos los trabajos estén finalizados para diciembre.



Anbulatorio inguruaren berrurbanizazioa.

Zumaia herria eraikitze prozesuan da. Eremu ugari dago momentu honetan obretan: Oikia, Artadi, Aita Mari auzoa, Basadi kalea, Basusta bidea... Udala hainbat eraberritze eta egokitzapen ari da egiten batean eta bestean.

Herritarren behar nagusienak identifikatu eta lehentasunak markatu ondoren, horiei erantzunak emango zaizkie laster. Urtea amaitzerako, Zumaia Udalak abian jarritako zazpi proiektuen lanak amaituta izatea aurreikusten da.

“Ez dira Zumaia proiektu guztiak izango, baina bai guztiak beharrezkoak”, dio Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak. Azaldu duenez, “ekimen batzuk, gainera, Udalak aurrera eramandako aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan ere aipatu ziren”.

Surfeko lokal berriaren egokitzapenak, anbulatorio inguruaren berrurbaniza-

zioak, Basadi kaleko bidegorriak, Artadiko ur-andela berriak, Oikiarako ur-hornidurak, Julene Azpeitia ikastetxeko estalpeak, eta Aita Mariko aparkalekuak ezaugarritzen dute zazpi proiektuen egitasmoa. Zumaia Udalak sustatu ditu eta Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiteko eskainitako diru-laguntzen bidez finantzatu dira.

Etxanizen arabera, “baliagarria” suertatu da diru-laguntza hori eta proiektu asko aurrera ateratzeko aukera eman du. “Hala ere, Udalak lan handia egin behar izan du diru hori kudeatzeko. Urtebeteko epean, egingarriak eta oso bideragarriak ziren proiektuei heldu diegu eta hala lortu dugu zazpi proiektu hauen exekuzioa aurrera ateratzea”.

Surfeko lokalak

Herrian dauden surfeko taldeek euren materiala gordetzeko zuten beharraz jabetuta, eta euren jardueraren mese-


derako ekin zion Udalak surfeko lokalak egokitzeko lanari. Gainerako lanen antzera, maiatz bukaeran hasi zuten obra eta Udaleko teknikariek azaldu dutenez, “lanak bide honetik doaz. Lokal barruko lanak asko aurreratuta daude eta urri-rako bukatuta izango da obra guztia”. Udala arduratu da obra zuzendaritza eta instalazio osoaren egokitzapenez. Lokal guztia egokitzeko dute eta 157.318,92 kostako da. (BEZ barne).

Anbulatorio inguruaren berrurbanizazioa (hiru proiektu)

Hiru proiektu osatuko dute anbulatorio inguruaren berrurbanizazioa. Horietatik bi Espainiako Gobernuak diru-laguntzek finantzatu dute eta hirugarrena Udalaren aurrekontu propioetik bideratuko da. Alde batetik, plaza bat sortuko da Basadi kalean eta oinezkoen pasabidearekin konexioa ahalbidetuko da. Instalazioak berrituko dira, anbulatorio aurrea berrurbanizatu eta aparkalekuak



Aita Mariko aparkalekuaren proiektua.



sortuko dira. Ildo beretik, anbulatorioaren atzealdea ere berrurbanizatzen ari dira eta aparkalekuak sortuko dituzte eremu horretan. Hirugarren proiektuak egikarrituko du Basadi kaleko bidegorria. Sagarbide kaleko bidegurutzetik Pantxita Etxezarretaraino egingo da bidegorria eta kalea norabide bakarrekoa izango da aurrerantzean. Aparkalekuak egokituko dira eremu honetan ere eta kalearen ordenazioa honakoa izango da: espaloia – bidegorria – aparkalekua – erreia - espaloia. Anbulatorio inguruko lanak urrirako bukatuta izatea aurreikusten du Udalak. 671.421,28 euro kostako da berrurbanizazio guztia.

Aita Mariko aparkalekuak

Aparkalekuen arazoari neurri batean erantzunez, Aita Mari auzoan 40 autorentzako aparkalekua egokituko da. “Ezertarako erabiltzen ez zen orube bat zegoen Aita Mari eta eremu hori egokituko dugu aparkalekuak sortzeko”, diote Udaleko teknikariek. Lehendabizi, zoladura berria jasateko beharrezko egitura ezaugarriak ez zituzten hormak erautsi egin ditu Udalak eta hormigoizko horma berriak eraiki dira horien lekuan. Horrek lur geruza trinkotu eta bere erresistentzia jasatea ahalbidetuko du. Instalazioak berrituko dituzte gero eta inguruko espaloiak eraberritu egingo dituzte. Udaleko teknikariek bideratu dute exekuzio honen obra zuzenda



Artadin egiten ari diren lanak.

ritza eta urrirako lanak bukatuta izatea aurreikusten du Udalak. 264.540,65 euroko aurrekontua dute lanek.

Artadiko ur depositoa

Herriguneaz gain, Zumaiako auzoak ez ditu albo batera utzi Udalak eta horri jarraiki egokituko dute Artadi auzoan ur-andela edo deposito berria. Lehengo eraikin zaharra bota eta berria eraikiko dute, edukiera handiagokoa. Lehen, Artadi auzoa bakarrik hornitzen zuen ur-andela zaharrak. 500 m³ko edukiera izango du ur-andela berriak eta Artadiz gain, Oikia eta Oikiako industrigunea hornituko ditu. Urtea bukatu baino lehen lanak amaitzea aurreikusten du Udalak eta 262.651,19 euro kostako da obra guztia.

Oikiako ur hornidura

Hainbat beharrianen artean zen baita ere Oikiako ur hornidura berriaren egokitzea. Zaharkituta egoteaz gain, ur emari mugatua garraiatzeko prestatuta zegoen, eta ez emari handiagotarako. Artadin eraikiko den ur-andela berritik bi linea berri aterako dira ur-hornidurarako. Bat, Oikiaraino joango da eta bestea Oikiako industrigunera. Ur gordailu berriaren exekuzioak, ahalbidetuko du ura presio egokiarekin bideratzea. Horrela, hidranteak jarri ahalko dira Oikia guztian eta suteetarako, adibidez, prestatuta izango da auzoa. Lanek

284.959,96 euroko aurrekontua dute eta urte bukaerarako obra bukatuta izatea aurreikusten da.

Julene Azpeitia ikastetxean estalpea

Udalak ahalegina egingo du ikasturtea hasi baino lehen Julene Azpeitia ikastetxeko lanak bukatzeko. Ekainean hasi zuten obra eta egitura metalikoaren zati bat egin dago jada. Umeentzako estalpedun jolasgunea egitea da exekuzio honen helburua. Hala, estalpea egokitu eta sarrera ipiniko da Alai Auzategitik. Gero, berriro muntatuko da jolastokia. 247.790,89 euro kostako da.

diversos proyectos promovidos por el Ayuntamiento están en fase de construcción. Está previsto que los siete proyectos impulsados por el Ayuntamiento y financiados con las ayudas del Gobierno de España, estén terminados antes de finalizar el año.

Según el concejal de urbanismo Andoni Etxaniz, “las ayudas económicas nos han servido para realizar diversos proyectos, algunos de ellos ya estuvieron presentes en el proceso de presupuestos participativos”.

El local de surf, la reurbanización del barrio Aita Mari, el depósito de agua de Artadi, el nuevo abastecimiento de agua para Oikia, el aparcamiento en Aita Mari, y el so techado de la escuela Julene Azpeitia caracterizan la iniciativa de los siete proyectos.

“Las obras van en buen camino”, comentaban los técnicos del Ayuntamiento, por lo que aseguran que el Ayuntamiento prevé que todos los trabajos estén finalizados antes de terminar el año.

El presupuesto de ejecución de todos estos trabajos asciende a 1.888.682 euros.

Jadarrre, Basusta eta Bidasoa



Zazpi proiektu horiez gain, Udalak sustatu ditu baita ere Jadarre auzoko, Bidasoa kaleko eta Basusta bideko eraberritze lanak. Ere mu horietan ere zenbait behar asebetzeko premia zegoelako egin dira lan horiek eta dagoeneko bukatuta daude bi, eta hirugarrena bukatzeaz da.

Uztail hasieran bukatu zuten Jadarre auzoa eraberritzeko lanen lehenengo fasea

eta orduan inauguratu zuten auzotarrentzako igogailu berria. Bizilagunek hainbat hobekuntza dituzte orain auzoan eta "oso gustura" agertu ziren inaugurazio ekitaldira. "Sekula ez da zentimorik gastatu gure auzoan eta bazen garaia norbaitek hemen esku hartzeko", zioen Jadarreko bizilaguna den Manuel Duranek.

Udalak igogailua jarri die Jadarre auzoko bizilagunei beheko plazatik goiko etxebi-

zitzetarako irisgarritasuna errazteko. Ildo beretik, auzoaren zati bat eraberritu eta espaloiak zabaldu ditu Udalak. Argiteria publikoaren instalazioak, berriz, lurpetik pasatu dira -orain artean airez pasatzen ziren, eraikinen fatxadetatik-.

Andoni Etxaniz hirigintza zinegotziak azaldu duenez, "Zumaiako auzoei ere atentzio berezia eskaintzea da gure asmoetako bat. Herrigunean badauden bezala, auzoetan zenbait zerbitzuren premia badute oraindik eta guk premia horiek asebetetzeko ahalegina egingo dugu".

Helburu horri jarraiki egin ditu Udalak Basusta bideko lanak ere. Auzoa asfaltatu eta espaloietan zoladura berria egokitu dute. Horrez gain, instalazio berria ezarri dute eremu horretan eta abuzturako lanak bukatuta izatea aurreikusten du Udalak.

Bidasoa kalea ere berrurbanizatu egin du Udalak. Asfaltatu egin dira Bidasoa kalea, eta Juan Belmonte, Ortega y Gasset eta Baltasar Etxabe kaleen zatiak. Horrez gain, Bidasoa kaleko espaloiak zuzendu eta berritu egin da kale horretako urhornidurako hoditeria. Udalak aurrera eramandako aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan ere aipatu zen Bidasoa kaleko espaloiak berritzearen beharra. Dagoeneko lanak bukatuta daude.

a parte de los citados trabajos, el Ayuntamiento también ha promovido los trabajos de urbanización de la calle Bidasoa, el paseo Basusta y el barrio Jadarre.

A principio del mes de julio finalizó la primera fase de las obras de adecuación del barrio Jadarre y se puso en marcha el nuevo ascensor para el barrio. Los vecinos ya gozan de numerosas mejoras y se mostraron contentos durante el acto de inauguración. "Nunca se ha gastado un céntimo en el barrio. Ya era hora de que alguien

se acordará de nosotros", comentaba Manuel Durán, vecino de Jadarre.

El Ayuntamiento ha acondicionado un ascensor para mejorar la accesibilidad de los vecinos, para subir de la plaza a la zona alta. En el mismo sentido han reformado parte del barrio y han ampliado las aceras. Las instalaciones del alumbrado público, Iberdrola y Telefonía, por su parte, han sido soterradas, ya que hasta la fecha se distribuían de forma aérea desde las fachadas de las edificaciones.

Según el concejal de urbanismo Andoni Etxaniz, el Ayuntamiento quiere prestar "especial interés a los barrios, ya que todavía algunos sufren de ciertas carencias".

Aparte de reurbanizar Jadarre, el Ayuntamiento está realizando varios trabajos para mejorar la accesibilidad en la urbanización de Basusta-Bidea. Se prevé que los trabajos finalicen a principios de agosto.

Las obras de la calle Bidasoa, por su parte, ya están finalizadas.



Berdinak izateko bidean, diagnosa abiapuntu

Udalak Berdintasun Plana abiatzeko asmoa du orain.

Joan den urteko azaroan abiatu zen Udalak bultzatutako Zumaia Emakumeen eta Gizonen Berdintasun diagnosa. Hilabeteetako lan mamitsuaren ondoren, herritarrek ikusgai daukate diagnosiaren behin betiko emaitza www.zumaia.net Udalaren webgunean.

Uztailaren 3an aurkeztu zuten Branka Gizarte Zerbitzuen zentroan prozesuak emandako emaitza eta datu esanguratsuenak aipatu zituzten. Fondo Formación Euskadi izan da Udalak eskatuta diagnosa gauzatu duena eta bertako kide Itsasne Loroño azaldu duenez, diagnosiari esker, “tresna desberdinak identifikatu dira aurrera begirako bideak egin ahal izateko”. Horretarako hainbat esparru aztertu eta datu ugari jaso dira.

Desberdintasunak datutan

Lanari dagokionez, udalerriko emakumeen okupazio tasa %68,4koa den bitartean, gizonezkoena %85koa da. Hori gutxi balitz, “desberdintasun adierazgarriak” ikusten dira soldatari dagokionean: “800 eurotik beherako pertsonen %83,2 emakumeak dira; aldiz, 1.500 eurotik gorako soldata jasotzen dutenen artean emakumeak %27,5 dira”.

Indarkeriari buruzko datuak ere plazaratu dituzte, esaterako Zumaia biztanleriaren %10,3 emakumeen kontrako indarkeria motaren baten testigu izan da noizbait. Herriko emakumeen %3,4a jazarpenaren biktima izan da, %1,5 erasoren batena, %3,4k ukituak jasan ditu eta %7,5ak izaera sexistako irainak. Loroñoek gaineratu duenez, “aipagarriak” dira gaz-

teen artean (16-25) jaso diren emaitzak: %10,9 jazarpen baten biktima izan da eta %10ak ukituak jaso ditu.

Azterketaren ondoren, Berdintasun Plana

Azterketa honetan oinarrituta, orain Udalak Berdintasun Plana abiatzeko asmoa du. Udalak aurrera ateratzen dituen egitasmoetan diagnostikoan oinarritutako irizpideak sartzea izango da helburua, esan zuen Iñaki Agirrezabalaga alkateak diagnosiaren aurkezpenean. Hirigintza alorrean, esaterako, herriko puntu beltzak edo seguruak ez direnak hobetu ditzake Udalak. Loroñoek azaldu duenez, herritarrei galdetu zaie-nean honako eremuak aipatu dituzte, besteak beste, ez seguru bezala: Puntanoeta, estazio ingurua eta paolbidea.

el diagnóstico de igualdad entre mujeres y hombres de Zumaia ha concluido con un trabajoso informe que radiografía las diferencias existentes entre hombres y mujeres de la localidad. Después de meses de trabajo arduo, el diagnóstico está al alcance de todos en la página web del Ayuntamiento.

La Fundación Fondo Formación Euskadi ha sido quien ha realizado el estudio y según la técnica de la fundación Itxasne Loroño, “el diagnóstico valdrá para iden-

tificar diferentes herramientas con las que podremos trabajar nuevos caminos de aquí en adelante”. Para ello, han analizado diferentes ámbitos y han obtenido numerosos datos significativos.

En el ámbito laboral la tasa de ocupación de las mujeres es de 68,4%; en cambio, la tasa de los hombres asciende a 85%. También se han recogido datos que indican la violencia ejercida contra las mujeres. Entre las mujeres de Zumaia, el 3,4% ha sido víctima

de un acoso alguna vez. El dato es aún más alarmante entre los jóvenes de entre 16 y 25 años, ya que el 10,9% de las jóvenes de Zumaia ha sufrido algún acoso.

Basándose en el diagnóstico, el Ayuntamiento pretende realizar un Plan de Igualdad para la localidad de Zumaia. El alcalde Iñaki Agirrezabalaga ha asegurado que el objetivo será “incorporar en el ejercicio municipal los criterios pactados en el diagnóstico y lograr esa transversalidad”.



Zumartian bizitzeko

Herriko komertzio eta enpresa desberdinak plataforma batean elkartuko dira

Zumaiako merkataritzaren eta turismo eskaintzaren pizgarri izateko asmoz, herriko komertzio eta enpresak uztartuko dituen Merkagune plataforma sortzeko lehenengo urratsak eman dira. Zumartian Zumaiako merkataritza eta, orokorrean, hirugarren sektore osoa sustatzeko sortu den bilgune berria da. Zumartian merkagune bat izango da, orain arte oso ezaguna ez den kontzeptua. Merkataritza eta Turismo sailetik honela deskribatu dute egitasmoa: “jendeari bi hitzetan azaltzeko behin baino gehiagotan erabili dugun adibidea ‘merkatal zentroarena’ da, gune horietan salerosketa bultzatzeko zerbitzu desberdinak biltzen direlako. Baina artifizialki sortutako guneak izaten dira horiek eta ez da hau Zumartian-en kasua”.

Esti Irureta turismo teknikariak azaldu duenez, merkataritza eta turismo eskaintzaren inguruan egindako diagnostian oinarritu dira egitasmoa abian jartzeko. “Euskal Herriko Unibertsitateari eskatu genion diagnosi hori egiteko lana eta egoera hobetzeko estrategia eta jarduera plan bat proposatzeko. Hortik abiatu zen merkagune plataforma sortzeko egitasmoa”, azaldu du Iruretak.

Zumaiako merkataritza eta aisialdirako eskaintza indarberritzeko estrategiak eta jarduerak martxan jartzea izango du helburu nagusia eta ildo beretik, Zumaiako hirugarren sektorea dinamizatzen saiatuko da.

Hirugarren sektoreko alor desberdinak egongo dira ordezkaturak elkartean: dendak, jatetxeak, ostatuak, zerbitzuen enpresak, kirol erakundeak, kultur elkarteak... Zumartian plataforma osatzeko prozesua, ordea, hasiberria da eta indartzen joateko, bazkideak beharrezkoak ditu. Horregatik, luzatu diote Udaleko Turismo eta Merkataritza Sailetik bazkide egiteko gonbidapena herriko komertzio eta enpresei.

Elkartea logotipoaren oinarri

Elkargunea sortzeko lehenengo urratsak eman dira. Zumartian izango da merkagunea identifikatuko duen izena. Logotipoa ere aukeratu dute. Juan Luis Blanco diseinatzaileak sortu du marka berria eta azaldu duenez, izenean oinarritu da irudia sortzeko. Hala, ‘Zuma’ hitzak Zumaiari egiten dio erreferentzia eta ‘artian’ hitz-elkarketak bi ideari egiten dio erreferentzia: “batetik, artea zahartzaren babesa irudikatzen da, eta beste-

tik, berriz, ‘zumaiarren artean’ ideia ere ordezkutzen da”.

Informazio gehiago jaso nahi duenak edo Zumartian elkarteko bazkide egin nahi dutenek turismo bulegora jo dezake.

Zumartian será la agrupación formada por el sector terciario de Zumaia y su principal objetivo será poner en marcha estrategias y actuaciones para impulsar el comercio y la oferta de ocio de Zumaia.

La creación se basa en un diagnóstico sobre la situación del comercio y la oferta turística de Zumaia realizado por la Universidad del País Vasco. “Lo promovimos con el fin de tener una base para proponer una serie de estrategias y un plan de actuación para su mejora”, comentaba la técnica de turismo Esti Irureta.

El proceso de formación de la plataforma el elemento fundamental son los socios por lo que el Ayuntamiento hace un llamamiento a participar.



Olarroaren omenez

irailaren 19an, VI. Olarro Eguna ospatuko da Zumaian. Aurten ere, herritarrek eskaintza polita izango dute olarroaren omenezko hainbat ekitalditan parte-hartzeko: lehiaketa gastronomikoa, brotxeta prestaketa, batel estropada, bazkari herrikoa, argazki rallya... Abuztuaren 17a baino lehen eman beharko da izena brotxeta prestaketan parte-har-

tzeko. Udalak 600 kilo olagarro erosiko ditu bazkarirako eta txosnetarako.

el 19 de septiembre se celebrará la VI. Edición del Olarro Eguna en Zumaia. El Ayuntamiento dispondrá 600 kilos de pulpo para la cita.

Musikaz jantzitako ibilbide oparoa

Zumaiako Musika Jaialdiak 25. urteurrena ospatuko du aurten.



1 984. urtean ospatu zen lehendabizikoz Zumaiako Musika Jaialdia. Hasiara artako antolatzaileek ekimena abian jarri zutenetik hona 25 urte pasatu dira, eta urtetik urtera gero eta ibilbide oparagoa uzten du atzean Zumaiako Musika Jaialdiak.

Aurten, jaialdiaren 25. urteurrena ospatzeko, egitarau zabala prestatu du Udalak. Donostiako Orfeoia bisitatuko gaitu eta G. Faure-ren Requiem interpretatuko dute. Abuztuaren 8an, 19:00etan izango da emanaldia Zumaiako parrokiari. “Udala guztiz autonomoa da jaialdiaren egitaraua prestatzerako garaian”, dio Pili Etxabe Kultura zinegotziak. Hala ere, Donostiako hamabostaldi musikalekoekin elkarlanean dihardutela azaldu eta harreman horren fruitua izan da, esaterako, abuztuaren 12an Dido & Eneas taldeak eskainiko duen Conductus Emsemble opera.

Emanaldi horiez gain, hala ere, eskaintza anitzak osatuko du aurtengo egitaraua. Etxabe zinegotziaren arabera, “egitarauan aniztasuna eskaintzen

saiatu gara Udaletik eta hala, orkestrak, jazz emanaldiak, herriko abesbatza eta musika banda elkarlanean, edota zinema eta musika zuzenean ekimenak eskainiko ditu, besteak beste, aurtengo egitarauak”.

Jazz emanaldiak iazko edizioak eskaini zituen lehen aldiz eta “izandako harrera ona” ikusita, aurten errepikatzea erabaki dutela azaldu du Etxabek. Zinema eta musika zuzenean ekimena izan ohi da, bestalde, egitasmoen artean Zumaian arrakastatsuenetako bat. Aurten, Txatarrerria Keaton taldeak pelikula bat interpretatuko du: “musika zuzenean jotzen dute filmaren haria jarraituz eta pelikula komikoa izan ohi denez, jendeak oso ondo pasatzen du”.

Jaialdiak bete dituen 25 urteak ospatzeko, ibilbide honetan guztian jaialdia antolatzen eta laguntzen ibili direnei bere esker ona adieraziko die Udalak. Abuztuaren 2an egingo den ekitaldian, bost alkate eta hainbat laguntzailek jasoko dute Udalaren esker-ona.

1, larunbata

The Cherry Boppers. 20:00etan Kofradiako plazan.

2, igandea

San Pedro abesbatza + Zumaiako Musika Banda. 22:30ean Ondartxo plazan.

3, astelehena

Impromptu taldearen kontzertu didaktikoa. 20:00etan Komentuan.

4, asteartea

Joaquin Asiain eta soka laukotea. 22:00etan Komentuan.

5, asteazkena

Garnati Minstrels. 22:00etan Komentuan.

6, osteguna

‘Txatarrerria Keaton’ musika eta zinema. 22:30ean Ondartxo plazan.

8, larunbata

Donostiako orfoia. 21:00etan parrokiari.

9, igandea

‘Cartoon Brass’ metal taldea. 20:00etan Mari kalean.

12, asteazkena

Conductus Emsemble ‘Dido & Eneas’. 22:00etan Maria eta Jose aretoan.

e l Festival de Música de Zumaia cumple este año su 25 aniversario. Coincidiendo con el acontecimiento, el Ayuntamiento ha completado una generosa programación. Entre otros, el Orfeón Donostiarra o el grupo Dido&Eneas ofrecerán su actuación.

Además de esas actuaciones, la variedad de actos completará el cartel de este año. Según comentaba la concejala de cultura Pili Etxabe, “hemos querido ofrecer un programa variado con la intención de satisfacer diferentes sensibilidades.

Para celebrar el 25 aniversario, el Ayuntamiento homenajeará a una serie de personas que durante todos estos años han colaborado en la organización del Festival.

Komenturako proposamenak



San Jose komentua Udalaren eskuetan geratu ostean, eraikinaren erabilpenaren inguruan herritarrek dituzten iritziak jasotzeko egitasmoa abian jarri zuen Udalak. Hala, zazpi proiektu jaso dira eta herritarrei aurkeztu zitzaizkien uztailearen 15ean Aita Mari zineman egin zen ekitaldian. Ildo beretik, zazpi proposamenak, bere osotasunean, www.zumaia.net Udalaren webgunean daude ikusgai. Orain, bigarren fase bati ekingo zaio eta komentuari emango zaion erabilpena zehaztu beharko dute.

El pasado 15 de julio se debatieron las diferentes propuestas sobre el uso del convento San José. En total se han recogido siete proyectos diferentes, y se pueden consultar en la página web del Ayuntamiento, www.zumaia.net.

Ecscan ziurtagiria

Zumaiako Udalak, apustu berri bat egingo du ingurumen arloan kalitatea hobetzeko. Irailean hasiko dira Itzurun eta Santiago hondartzetan Ecscan ziurtagiriaren baitako auditoriak egiten eta aurrerantzean ere, hondartzen kalitatearen alde lanean jarraituko du Udalak. Hala, aurten Ecscan ziurtagiriak hobekuntza horretan lagunduko duen bezala, datozen urteetan ISO 14.000 ateratzeko ahalegina egingo da. Udaletxeko eta kiroldegiko eraikinek ere parte hartuko dute hobetze prozesu honetan. Horien kasuan, urtarilean hasiko dira auditoriak.

En septiembre comenzarán las auditorias para obtener el certificado Ecscan en las playas de Santiago e Itzurun. El certificado pretende mejorar la calidad de las playas.



Yeti programa gazteen topaleku



Zumaiako gazte talde batek Europako Yeti (Youth Exchange Team International) programan parte hartuko du abuztu honetan. Alemanian egingo da aurten eta Zumaiako Gaztegunek bultzatu du Europako gazte desberdinak elkartuko dituen ekimen honetan Zumaiko gazteen parte-hartzea. Beste kulturak ikasteko aukera ederra izango dute gazteek eta, bide batez, atzerrian eta atzerritarrekin komunikatzen ikasteko topalekua izango da programa. Ekintza desberdinen artean, gau bat pasako dute Oihan Beltzean.

Un grupo de jóvenes de Zumaia participará en el Programa Yeti (Youth Exchange Team Internacional) que se celebrará en Alemania durante el mes de agosto. El Gazteguneko de Zumaia ha sido el impulsor de la participación de zumaiarras en esta iniciativa que unirá a jóvenes de toda Europa.



azken boladan gure kaleetan hainbat errebin-dikazio ikusi ditugu: NON DAGO ZUMAIAKO FRONTOIA? diote kamisetek.

Berez, frontoiaren obrak martxan beharko lukete aspaldidanik.

Hasieran, saihebidetaren obrek eragotzi zuten. Ezin ziren bat etorri saihebidetaren pendizen egituratzea eta frontoiaren zimentazio lanak. Ulegarria, udal-tekni-karien esanetan.

Baina saihebidetaren bukatu zela bada, dagoeneko, urte bete. Eta frontoiaren arrastorik ez.

Azken Plenoan, Alkateak, beste behin ere, EAJ-ko kideei leporatu zigun frontoiaren arazoa. Beste gairontzeko arazo guztiekin gertatzen den bezala. Jatorrizko hirigintza-hitzarmenean omen dago, Alkatearen aburuz, akatsa. Besteak beste, EA-k ere aldeko botoa eman ziola akordarazi genion.

Badakigu udal- gestioa ez dela erraza. Eta dirutzak tartean direnean, frontoiaren kasuan bezala, are zailagoak izaten direla. Baina alkatek, gobernu-ekipoek oro har, zailtasunak gainditzeko gai izan behar dute. Arazorik ez balego, denok soberan geundeke, gobernu zein oposizioko kideok.

Badira bi urte baino gehiago EA eta ANV Udalaren zuzendaritzan daudela. Erantzukizunaren jabe egiteko nahikoa dena baina denbora gehiago. Agintaldiaren erdia, jada, pasa da.

Bestalde, Odieta botatzeko presa izan zuten, ia badira bi urte. Normala izan zitekeen era berean Odietako auzoko proiektua berehala gauzatzeko hasi balira. Baina ez. Ez frontoirik, ez fundamenturik obrak egiterakoan. Zenbat denbora darama orain ere denak geldirik, zumaiarrok frontoirik eta plazarik gabe gauden bitartean?

Bukatzeko, Jadarreko berrurbanizazioaren lehen fasearen inaugurazioa dela eta bertako zumaiarrek zoriondu nahi ditugu. Auzuneak behar zuen, bai, erroto astindu bat. Hori bai, pena ematen digu honetaraino iritsi ondoren, Udalak proiektua 700.000 eurotan moztu duela jakiteak. Gure ustez ez hainbeste krisi ekonomikoaren eraginez, baizik beharrezkoak ziren hainbat aurreko lan egiten asmatu ez dutelako. Edonola ere, zorionak, Jadarre.



udaleko Gobernu Taldean sartu eta lanean hasi ginenean, gure lehentasunetako bat izan zen **Udal sendoa eraikitzea**. Izan ere, hainbat urtetan udal-langileekin eramandako politikak ekarri zuen plantilla etengabe murriztea eta zerbitzuak azpikontratatzeari, baita oinarri-oinarrikoenak ere, Udalarari merkeago ateratzen zitzaizkion zerbitzuak besteei ematea berak bere gain hartzea baino (adibidez, ikusi besterik ez dago zer gertatu zen brigadarekin). Udal-langileei dagokionez, PNV-ren irizpide nagusietako bat izan zen dirua aurrezteariki, gehienetan langileen kalterako. Bi urte hauetan ahalegin handia egin dugu lehendik "atzeratuta" zeuden eguneratzen: lanpostuen balorazioa, lan-hitzarmenak berrikusi eta normalizatu, legez kanpoko luzapenei bukaera eman eta kontratazio-prozedura asko martxan jarri, langile berriak hartu... Zumaiako Udala sendotzen ari gara, eta egindako lan guztia **zumaiarrek jasotzen duten zerbitzua hobetzeko** izango da.

Egunotan hainbat ahots entzun ditugu herrian, **frontoi berria** noiz egingo den galdezka, eta batzuek ahalegin berezia egin dute ahots horiei bozgorailua jartzeko, Udal Gobernuak kritikatzeko. Frontoi berria ez eraikitzeko arrazoia, batez ere, enpresa eraiki-tzailearekin sinatu zen **hitzarmen kaskarra** da; konstruktorak agindu zuen frontoi berria egingo zuela Ardantzabiden etxe gehiago eraikitzeko baimenaren truke; izan ere, hori zen lehengo Udalaren jokaeretakoa bat: enpresa eraikitzaileei erraztasunak eman eta trukean zerbait jaso, nahiz eta jokaera horrek etxebizitzaren prezioa igotzea eragin eta erosleek ordaindu behar. Kontua da hitzarmen hura sinatu zela eraikuntzaren sektorea bere onenean zegoenean, eta krisia dela-eta gerrikoa estutu beharra etorri denean, orain sortu dira arazoak: frontoia egiten hasiko dira Ardantzabideko etxeak amaitutakoan, baina etxeak saltzen ez direnez, enpresa eraikitzailea nahita luzatzen ari da amaiera, eta beste lan batzuk ere amaitzeko dauzka: Intxaurtuetakoa eskailera, igogailua...

Duela gutxi, bi urte hauen balantzea egitean, oposizioko bozeramaile batek adierazi du prest legokeela Zumaiako Udalaren kudeaketan laguntzeko "*siempre que sea en beneficio del pueblo*". Gu horretan ari gara, eta ateak zabalik dauzkagu nahi duenarentzat.



han pasado dos años desde que cogiéramos las riendas del Ayuntamiento. ¿Y qué hemos hecho en estos dos años?

Prometimos que íbamos a cambiar la forma de gestionar Zumaia Lantzen, y en ello estamos. De hecho, está a punto de concluir el período que abrimos para contratar un gestor, un contable financiero y un administrativo. Una forma de gestionar más directa, y que entre otras cosas nos permitirá ahorrar más dinero.

En cuanto a la movilidad, planteábamos la posibilidad de construir un puente móvil que uniera el pueblo y el puerto deportivo, y hemos tenido oportunidad de ver las diferentes alternativas que puede haber tanto técnica como económicamente. En la actualidad, estamos exponiendo éste planteamiento a los nuevos responsables del Gobierno Vasco. Por otra parte, hemos tratado de reorganizar zonas de tránsito peatonal y vehículos (en la medida de lo posible tratando de ampliar al número de aparcamientos). A la vez, hemos impulsado una campaña para aminorar el uso del coche, con iniciativas como el préstamo de bicis o la implantación para otoño de un servicio de autobús urbano.

Poco a poco nos estamos acercando a solucionar la problemática de los barrios. Jadarre ha visto concluida las obras de la primera fase con satisfacción. En la estación, reorganizamos aparcamientos y aceras a la vez que canalizamos aguas pluviales que salían de su cauce normal. En el barrio Basusta también se han introducido mejoras. En Artadi estamos construyendo un nuevo depósito de agua, para que llegue a más vecinos de Oikia agua potable.

Dimos una respuesta inmediata a la gran demanda que había de una guardería. Una solución que ha despertado mucho interés en otros municipios de Euskal Herria. En servicios sociales, estamos a punto de duplicar el servicio que se prestaba. En comercio, hemos impulsado la actividad comercial de nuestro pueblo con diferentes iniciativas bien visibles y de gran éxito. En el ámbito deportivo, hemos creado un patronato de deportes, con la esperanza de que eso sirva como revulsivo de la gran actividad deportiva en nuestro pueblo.

Sin embargo, queda mucho por hacer. Pero seguiremos trabajando como hasta ahora en la consecución de los objetivos a perseguir. Con el empeño de algunos y la colaboración constructiva de otros, esperamos conseguir la meta deseada.



ekaineko osoko bilkuran alderdi guztien aldeko botoekin, PNVrenak izan ezik hauek aurkako botoa eman baitzuten, onartu zen kirol patronatua sortzea. Patronatu honen betebeharrak garrantzitsuenak herriko kirola eta kiroldegia antolatu eta kudeatzea izango da, kiroldegia kudeatzen duen enpresarekin eginko kontratua aurten amaitzen baita. Gure ustez, proposamen hau aurrerapauso bat da begi onez ikusten baitugu kiroldegia udaletxeak zuzenean kudeatzea eta ez azpikontraturiko enpresa batek. Hala ere, esan nahi dugu azpikontratazioa ez dela guztiz desagertzen, kiroldegiko langileen kontratazioak kudeatzeko enpresa bat azpikontratatu baita. Puntu hau gogor kritikatu genuen eta plenoan genion bezala patronatuko bileretara joango den gure ordezkaria hau aldatzen saiatuko da.

En el pleno de junio se aprobó, con los votos a favor de todos los partidos excepto el PNV que votó en contra, crear un patronato de deportes. Este patronato tendrá como labor principal organizar y gestionar tanto el deporte como el polideportivo puesto que el contrato con la empresa subcontratada para la gestión de éste último finaliza este año. Desde nuestra coalición queremos decir que la subcontratación no desaparece del todo puesto que para la gestión de las contrataciones de los trabajadores del polideportivo se va a subcontratar una empresa. Este punto fue muy criticado por nuestra coalición y como dijimos en el pleno nuestro representante que acuda a las reuniones del patronato intentará que desaparezca esta subcontrata.



en la comisión de hacienda de 9-06-09, se presentó el cierre de cuentas del 2008 con un remanente de más de 6 millones de euros ¿Por qué esta cantidad de dinero en tesorería?, por una razón muy sencilla. El gasto en inversión del presupuesto no llegó a lo largo del año al 40% del presupuesto aprobado para este apartado, que es el que marca el gasto a realizar en el año en curso para obras, infraestructuras, y otros gastos no considerados como mantenimiento o gasto corriente. Esto nos da una clara imagen de poco o nula gestión a lo largo del año en el ayuntamiento, sobre todo en urbanismo, no es que queramos que se hagan obras por el mero hecho de gastar, sino por poner un ejemplo la construcción del nuevo frontón, no estará listo para su uso antes del 2012 o 2013, aunque me gustaría equivocarme, tenemos una reunión sobre este tema pendiente desde marzo, en cambio en esta misma comisión, se presenta un escrito sobre posible gasto hasta finales del año 2009 de más de 4 millones de euros, resulta curioso que en dos años de legislatura 2007 y 2008 no se haya gestionado todo este dinero, y en seis meses, con el verano de por medio, se nos diga que se van a gestionar, cuando la obra de mayor envergadura y que no empezará antes de septiembre, y con una duración mínima de 12 meses, tiene un presupuesto de poco más de 2 millones de euros, vamos, del todo imposible.

En el pleno del pasado 25-06-09 se aprobaron los estatutos de lo que deberá ser el nuevo patronato de deportes, nuestro voto fue positivo, aunque hicimos constar que dependerá de la gestión que se realice desde el patronato, para que esta nueva forma de gestionar el deporte sea positiva o no para el mismo, por lo que habrá que dar un margen de confianza en su puesta en funcionamiento.

Después de todo lo dicho sobre Zumaia Lantzen, nos encontramos en el último consejo de administración celebrado el 25 que ni empieza su nueva forma de gestión ni termina la vieja y actual a la vez, pero eso sí, ante la indecisión, este año 2009 presenta en su actividad de gestión un déficit de más de 5 millones de euros ¿Quién va a pagar el coste de esta financiación?, porque el crédito necesario no es gratis, tiene unos intereses.

En cuanto al peatonal de Narrondo, los problemas con vecinos afectados esperamos que queden resueltos de la mejor forma posible a través de la negociación.

Ekainaren 25eko ohiko plenoa

Ondorengo puntuak eztabaidatu eta bozkatu ziren:

1- Maiatzaren 28ko ohiko plenoko akta onartu zen.

2- Ogasuna. 2008ko aurrekontuko likidazioen berri eman zen.

3- Gizarte Zerbitzuak:

3.1- 2009. urterako, Zumaian adineko pertsonen elkar-teentzako dirulaguntzak aho batez onartu ziren.

3.2- 2009ko urterako jarduerak gizarte zerbitzuetan garatzen dituzten elkar-teentzako dirulaguntzak ere aho batez onartu ziren.

4- Hezkuntza eta euskara sailetik, UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) estatutuak onartu egin ziren, aldeko sei boto (EA, talde mistoa eta EB-Aralar) eta beste sei abstenitu egin ziren (EAJ, PSE-EE).

5- Kirol Patronatuko estatutuak ere onartu egin ziren aldeko zortzi boto (EA, talde mistoa, EB-Aralar eta PSE-EE) eta kontrako lau botorekin (EAJ).

Resolución del pleno ordinario celebrado el día 25 de junio

1- Aprobación del acta del pleno ordinario del 28 de mayo.

2- Se procedió a dar cuenta de la liquidación presupuestaria del 2008.

3- Bienestar social:

3.1- Se aprobó en unanimidad la concesión de ayudas económicas para asociaciones de personas mayores para el año 2009.

3.2- Se aprobó en unanimidad la concesión de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en servicios sociales.

4- Educación y euskera: Se aprobaron con seis votos a favor (EA, grupo mixto, EB-Aralar) los estatutos de UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes). Seis se abstuvieron (PNV y PSE).

5- También se aprobaron los estatutos del Patronato de Deportes, con ocho votos a favor (EA, grupo mixto, EB-Aralar y PSE) y cuatro en contra (PNV).

agenda abuztua agosto / iraila septiembre



Abuztua / Agosto

1etik 12ra

ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA : 25. edizioaren barne kontzertu egitaraua.

Festival de Música de Zumaia.

XXXVIII . DINASTIA ETXABE PELOTA TXAPELKETA: Zestoako frontoian, abuztuak 4, 6, 11, 13, 18 eta 21ean. finalak 24ean. Gaueko 10etan.

Larunbata, 1 Sabado

BERBENA GAUA *Berbena de gala*

18:30ean: nesken estropada – Eusko tren liga. *Regatas de mujeres – Liga Eusko Tren.*

19:00etan: San Miguel liga – TKA – ZUMAIAKO IKURRINA

Ikurrina de Zumaia - Liga San Miguel

20:00etan CHERRY BOOPERS jazz taldea kofradian *Concierto de jazz de Cherry Boopers, en la cofradía.*

22:30ean plazan, ARANTZA ETA PANTXOekin boleroak eta rancherak. *Boleros y rancheras con Arantza y Pantxo, en la plaza.* 24:00ean BERBENA EGUNEKO DISKOTEKA *Discoteca.*

Igandea, 2 Domingo

12:00etan Estropada ARC2 *Regatas ARC2.*

22:00etan Ondartxo plazan, Musika Jaialdiaren barne, 25. urteurreneko ekitaldi berezia eta Musika Banda eta San Pedro abesbatzaren kontzertua.

Concierto de la Banda de Música y el coro San Pedro, en la plaza Ondartxo.

Osteguna, 6 Jueves

7:30etik 12:00etara XXXIV Kabra eta Dontzeila Herri Lehiaketa *Campeonato XXXIV. Kabra eta Dontzeila.*

Ostirala, 7 Viernes

Euskal Jaiak / Fiesta Vasca

10:00etan Txupinazoa eta egunari hasiera

UGARTE ANAIK txalapartariarekin batera Azokaren Irekiera.

Alde zaharrean: Baserriko gaien azoka. Haurrentzat Tailerrak

HALA GERA albokariaren eta dultzainariaren kalejira

ITURENGO JOALDUNAK

12:00ean Kofradian, Salda

13:00etan Balkoitik balkoirako bertso saioa San Juan Iturri inguruan, eta ZAZPI ASTOREN GAINEAN bertso-txikiteoa trikitilariaren laguntzarekin. Bertsolariak: Iñaki Apalategi, Aitzol Barandiaran eta Jon Martin.

15:00etan Bazkari herrikoia Erribera kalean: Paella erraldoia.

18:00etatik aurrera Kantauri plazan, sagardo dastaketa eta erro-

meria ERDIZKA LAUETAN taldearekin.

23:00etan Berbena kofradian, TRAKETS taldearekin *Chupinazo*

Apertura de la feria con la txalaparta.

Feria de productos agrícolas y talleres para niños en el Casco Viejo.

Pasacalle, bertsolaris, comida popular...

Larunbata, 8 Sabado

15:00etik 18:00etara XXXV Arrain Txiki Lehiaketa

XXXV. Campeonato 'Arrain Txiki Lehiaketa'.

19:30ean. Esku baloiko txapelketa. Itxako – Akaba Bera Bera.

Campeonato de balonmano. Itxako-Akaba Bera Bera.

21:00etan Musika Jaialdiaren barne, Donostiako Orfeoien kontzertua.

Concierto del Orfeón donostiarra.

Igandea, 9 Domingo

20:00etan Mari kalean CARtoon Brass taldearen kontzertua *Concierto de Cartón Brass en la calle Mari.*

Larunbata, 15 Sabado

9:00etan Kaleko Pintura Topaketa

Concurso de pintura en la calle.

16:30ean Haurrentzat Pintura Tailerra.

Taller de pintura para los niños y niñas.

Igandea, 16 Domingo

18:30ean plazan “KUKO, TRUKO ETA BOLENWAIDER” paila-
zoen ikuskizuna .

Actuación de los payasos KUKO, TRUKO ETA BOLENWAIDER.

17tik 21era

22:30ean Aita Mari zineman, Udako zinema zikloa.

En el cine Aita Mari, ciclo de cine del verano.

17 “REVOLUTIONARY ROAD”

18 “THE INTERNATIONAL”

19 “SICKO”

20 “DÉJAME ENTRAR”

21 “LOS HOMBRES QUE NO AMABAN A LAS MUJERES”

Igandea, 23 Igandea

19:00etan Zuloaga museoko lorategian, Chinako THE SILK
STRING QUARTET taldearen kontzertua.

*En el jardín del Museo Zuloaga, concierto de THE SILK STRING
QUARTET.*

24tik 28ra

Oikiako Jaiak / Fiestas en Oikia

Larunbata, 29 Sabado

GAZTE EGUNA (ikusitako egitaraua)

11:00etan Boskirol gazteak *Campeonato Boskirola jóvenes.*

11:30ean helduak *Mayores.*

(igeriketa-patinak-surfa-piragüa-bizikleta).

14:30ean Bazkaria *Comida popular.*

18:00etan kuadrilen arteko jolasak *Juegos.*

18:30ean The Txortain's taldearekin kalejira *Pasacalle con el grupo The Txortain's.*

21:30ean plazan, EUSKO DANCE ikuskizuna gaztetxoentzat

Actuación de EuskoDance.

22:30ean moilan, KONTZERTUA *Concierto en el puerto.*

Igandea, 30 Igandea

18:30ean Kofradian, Gaztetxoentzat Disko-jai.

Fiesta Disco.

Iraila / Septiembre

Larunbata, 19 Sabado

OLARRO EGUNA

27tik aurrera

Artadi Auzoko Jaiak-SAN MIGELAK

Fiestas de San Miguel en el barrio Artadi.

